

MONDRAGONEKO ORGANOEN BALORAZIOA ORONAN ETA ULMAN IREKITAKO BARNE PROZESUEI BURUZ

ORONako eta ULMAko organoek irekitako barne prozesuei lotutako zenbait alderdi argitzeko, non planteatzen duten urtea amaitu baino lehen beren ezohiko batzarrak deitzea MONDRAGONetik irten ahal izateko bozketa egiteko, **Batzorde Iraunkorrek eta Kontseilu Orokorrek gogoeta hauek egiten ditugu MONDRAGONEko kooperatiba eta bazkide guztiei zuzenduta**. ORONaren eta ULMAREN aldetik ez dugu berri zuzenik izan ireki duten prozesu horien gainean.

Errespetu instituzional osoz egiten dugu, ORONako eta ULMAko organoen subiranotasuna aitortuz, baita bazkideek beren etorkizunerako onenak iruditzen zaizkien erabakiak hartzeko duten ahalmen osoa aitortuz ere; baina, halaber, **MONDRAGONEko organoen balorazioa gure kolektiboari helarazteko dugun betebeharretik** ere.

1. MONDRAGON bere kooperatibek izatea erabakitzen dutena izango da.

MONDRAGON printzipio demokratikoen arabera arautzen da: edozein aldaketa planteatu daiteke elkarrizketatik, eztabaida informatutik, behar besteko denborarekin eta bere kooperatiba eta dibisio guztiak ordezkatzeko dituzten organoen gehiengoak errespetatuz.

2. Harreman esparru berri baterako ORONaren eta ULMAn proposamena.

Ekainaren 3an, ORONak eta ULMAk proposamen bat bidali zuten, gaur egun MONDRAGON den horretan aldaketa sakona dakarrena, 2022ko Kongresura eramateko eskakizunarekin.

3. MONDRAGONeko organoen balorazioa ORONak eta ULMAn aurkeztutako proposamenari dagokionez.

Horrelako planteamendu sakon batek, MONDRAGONen kontzeptua bera aldatzen duenak, Kongresua eratu zenetik egin beharreko berrikuspenik handiena ekarriko luke. Ondorioz, lan eta hausnarketa prozesu lasaia, sakona eta parte hartzailea beharko luke.

4. MONDRAGONeko organoen balorazioa ORONan eta ULMAn irekitako barne prozesuei buruz.

Gaiari modu eraikitzailean heltzeko modu bakarra dago, eta hori elkarrizketa da. MONDRAGONeko organoak elkarrizketarako prest gaude, inolako erreserbarik gabe eta etengabe, MONDRAGONeko organoetara ORONaren eta ULMAn asistentzia berreskuratzeko eskatuz eta horien organo sozialekin bilerak eskatuz, azken batean, haien proposamenak eztabaidarako irekitzeko.



1. MONDRAGON bere kooperatibek izatea erabakitzen dutena izango da



MONDRAGON printzipio demokratikoen arabera arautzen da: edozein aldaketa planteatu daiteke elkarrizketatik, eztabaida informatutik, behar besteko denborarekin eta bere kooperatiba eta dibisio guztiak ordezkatzeko dituzten organoen gehiengoak errespetatuz.

- MONDRAGONen jarduera oinarriak Kongresuak onartutako arauetan xedatzen dira, non bere kooperatiba eta dibisio guztietako 650 ordezkari elkartzen baitira.
- Urteetan zehar, Arau horiek egoera desberdinetara egokitu dira, kooperatibak ordezkatzeko dituzten organoen lanaren, eztabaidaren eta akordio bateratuaren ondorioz.
- Kongresura eramaten diren ponentziak Kontseilu Orokorrak eta Batzorde Iraunkorrak eta kooperatibek eta dibisioek beraiek lantzen dituzte, ponentzia bihurtu aurretik. Ondoren, kooperatibetara eramaten dira berriro, eta zuzenketak aurkezteko epea zabaltzen da. Halaber, aukera dago kooperatibak/dibisioak berak izan daitezkeen Kongresurako ponentziak zuzenean planteatzeko dituztenak. Nolanahi ere, gaia zenbat eta garrantzitsuagoa izan, orduan eta kontu handiagoz jokatu behar da parte hartze prozesuan.
- Urte hauetan guztietan, kooperatibek modu aktiboan parte hartu dute modu horretan, baita ORONAK eta ULMAK ere, eta, irtenbide komunak aurkitzeko egindako lan biziari esker, Kongresuak adostasun maila oso handiekin burutu dira. 2016 mugarri garrantzitsua izan zen Etorkizuneko MONDRAGONen onespenearekin, eta hurrengo Kongresuetan ia urtero ponentzia bat edo bi onartu ditugu, guztiak ORONAKen eta ULMAren babesarekin.
- Gaur egun MONDRAGON dena erabakitzeko modu horren emaitza da. Egin diren Kongresuetan lortutako akordioak elkarrizketarako, irekitasunez eztabaidatzeko eta akordioak lortzeko gaitasunaren ondorio izan dira. Eta etorkizunean ere horrela izatea nahi eta espero dugu.



2. Harreman esparru berri baterako ORONAre eta ULMAren proposamena



Ekainaren 3an, ORONAK eta ULMAk proposamen bat bidali zuten, gaur egun MONDRAGON den horretan aldaketa sakona dakarrena, 2022ko Kongresura eramateko eskakizunarekin.

- Kontseilu Orokorrak eta Batzorde Iraunkorrak ekainaren 7ko eta 10eko bileretan 2022ko Kongresua deitu baino egun gutxi lehenago, ORONAKo eta ULMAko ordezkariak proposamen bat helarazi zuten idatziz, Kongresu horretara bertara eramateko eskakizunarekin.
- Proposamenak planteatzen du MONDRAGONen “itunpeko kooperatiben” figura berri bat sortzea, ezaugarri hauekin:
 - Kongresuari atxikitako oinarrizko kooperatibak izateari uzten diote,
 - ez zaizkie aplikatzen Kongresuak onartutako arauak,
 - ez dute parte hartzen, oro har, kooperatibok ditugun lankidetzaren eta elkartasun mekanismoetan, eta,
 - urtebeteko iraupena izango duen hitzarmen batean ezartzen dira MONDRAGONekin egon daitezkeen lankidetzaren esparruak eta konpromisoak.



3. MONDRAGONeko organoen balorazioa ORONaren eta ULMAren proposamenari buruz



Horrelako planteamendu sakon batek, MONDRAGONen kontzeptua bera aldatzen duenak, Kongresua eratu zenetik egin den berrikuspenik handiena ekarriko luke. Ondorioz, lan eta hausnarketa prozesu lasaia, sakona eta parte hartze handikoa beharko luke.

- ORONaren eta ULMAren proposamena ekainaren 7an eta 10ean aurkeztu zen organo korporatiboen bileretan, baina Kontseilu Orokorrean duten ordezkarietako batek ere ez zuen parte hartu bileran, ezta ULMAko ordezkariak Batzorde Iraunkorrean ere.
- Proposamena aurkezteko moduak eta epeak gorabehera, MONDRAGONeko organoak aztertu eta ez genuen aho batez onartu, arrazoi hauetan oinarrituta:
 - Proposamenak MONDRAGONekin harremanak izateko modu guztiz desberdina planteatzen du, eta ez dira identifikatzen planteamendua egiteko dituzten arrazoi zehatzak, ezta zer beharizan konkretuei erantzun nahi dien ere.
 - Organoek ezin dugu horrelako proposamen bat Kongresura epe horietan eramatea onartu (Kongresua deitu bezperatan), ponentzia orok aldeztetik behar duen eztabaida eta parte hartze prozesurik egin gabe.
 - Horrelako proposamenak ezin dira tratatu proposamen horiek egiten dituzten dibisioetako ordezkariak bertan egon gabe.
- MONDRAGONeko organoek edozein kooperatibatatik datorren edozein proposamen aztertuko dugu, betiere hausnarketa prozesu ordenatu baterako denborak eta prozedurak errespetatzen badira, eztabaida sano eta demokratiko batekin.



4. MONDRAGONeko organoen balorazioa ORONAK eta ULMak irekitako prozesuari buruz



Gaiari modu eraikitzailean heltzeko modu bakarra dago, eta hori elkarrizketa da. MONDRAGONeko organoak elkarrizketarako prest gaude, inolako erreserbarik gabe eta etengabe, MONDRAGONeko organoetara ORONAREN eta ULMAREN asistentzia berreskuratzeko eskatuz eta horien organo sozialekin bilerak eskatuz, azken batean, haien proposamenak eztabaidarako irekitzeko.

- **MONDRAGONeko kide izateko modu desberdin asko daude, dibertsitateak batzen eta aberasten gaitu.** Praktika kooperatiboak ulertzeko modu desberdinak daude, jarduera sektoreen eta kooperatibismoaren bizipenen aniztasun handiagatik. Horregatik, arauak leku handia uzten dute kooperatiba eta dibisio bakoitzean kudeaketa propioa egiteko. Ekintzarako askatasun hori erabatekoa da enpresaren esparruari dagokionez. Kooperatiba bakar batek ere ez ditu bere planak mugatu MONDRAGONeko kide izateagatik, alderantziz baizik; MONDRAGONek bere baliabideak eskaintzen ditu, bere kooperatiben eta bere kooperatibentzako ekarpenekin hornituta, kooperatiba bakoitzaren proiektuak urrunago iritsi ahal izateko.
- **Lankidetzaren eta elkartasuna, gizarte bidezkoago baten zerbitzura.** MONDRAGONen eredu kooperatiboa ez dago zalantzan, eta elkartasuna eta interkooperazioa inoiz baino beharrezkoagoak dira ziurgabetasun garai hauetan kooperatibak indartzeko, hurrengo belaunaldiei ondare hobea ziurtatzeko eta gizarte berdinezaleagoa, justuagoa eta kohesionatuagoa lortzen laguntzeko. Erreferentzia bizia, dinamikoa eta demokratikoa izaten jarraitzen dugu, ikuspegi solidarioarekin eta transzendentzia sozialekin, gauden inguru guztietan, eta lanean jarraituko dugu horrela izan dadin, batasunak ematen digun indarrarekin.
- **Zenbat eta zailtasun handiagoak, orduan eta elkarrizketa gehiago.** Kontseilu Orokorreko eta Batzorde Iraunkorreko lehendakariak formalki eskatu dituzte bilerak ORONAKO eta ULMAKO organo sozialekin, baina orain arte ezin izan gara batu. Gure ustez, zailtasun uneetan egin behar dira ahalegin handienak entzuteko eta adostasun zabalak bilatzeko, sentsibilitate desberdinak proiektu partekatu batean uztartuz. Betiere, balio kooperatiboak eta guztion artean onartu ditugun eta guztion artean alda ditzakegun arauak erabateko errespetatuz. Eta hori da orain ere MONDRAGONeko organoen asmoa.